Oro har, egun horietako lana lanaldi zatituko langileek egingo dute. Lanaldi zatituko langileen artean lanpostu hutsen bat bada, eta ezaugarri horiek dituen langilerik ez badago, lanaldi osoz kontratatutako boluntarioek egingo dute zerbitzua, eta horrelakorik egon ezean derrigorrezko txandak ezarriko dira.

Larunbat, igande eta jai-egunetako zerbitzua horretarako kontratatu ez diren langileek egiten dutenean, II. eranskineko ordain-sariak jasoko dira (lanaldi zatituko langileen soldata-taulak), kontentsatzeko atsedenek gabe.

18. artikulua.—Oporrak

Hitzarmen Kolektibo honen eraginpeko langile guztiek ordainduriko 30 laneguneko oporrak edukiko dituzte.

Oporrak urte natural bakoitzean hartuko dira. Enpresan zerbitzuak eskaintzen diren lehenengo urtean, urte horretan lan egindako denborari dagokion zati proportzionala soilik baliatzeko eskubidea izango da. Eskubide hori onartzen zaie bai lanaldi osoko bai asteburu eta jai-egunetako zerbitzua ematen duten lanaldi zatituko langileei.

Urteko oporrak hartzeko bi txanda ezartzen dira:

— I. txanda: Uztailaren 31tik 30 lanegun atzerago.

— II. txanda: Abuztuaren 1etik aurrera, 30 lanegun.

Denboraldi honetatik kanpo oporrak hartu nahi dituen langileak oporrak hartu edo lehen opor-txanda hasi baino hilabete bat lehenago jakinaraziko dio Enpresari, eta oporrak zein hilabetetan hartu nahi dituen jakinaraziko du.

Hala eta guztiz ere, langileek aukera izango dute 30 lan-egunetako 6 ezarritako opor-txandetatik kanpo hartzeko, eta egun horiek 2 alditan banandu ahal izango dira gehienez. Aldi horietako batean larunbat bat sartu beharko litzateke, eta ezin izango dituzte epe berean oporrak hartu lantoki bakoitzeko langileen %25ek baino gehiagok batera, txanda eta kategoria berekoak baldin badira.

Eskaera horiek aurreko puntuan ezarritako ehunekoa baino handiagoak badira, lantoki bakoitzean ezartzen diren irizpideen arabera hartuko dira.

Urte bakoitzeko martxoan oporrak hartzeko egutegi orokorra egingo da. Egutegi horretan langile bakoitzari dagozkion egunak eta txandak azalduko dira, baina lan-txanda ezberdinetara, atsedendietara, herriko jaietara eta lantoki bakoitzeko berezko berezitasunetara aldatu eta egokitu ahal izango dira, Enpresarekin ados jarri ondoren.

Opor-txanda hasi behar duenean, lan-istripuak eraginda, edo ospitaleratuta dagoelako Aldi Baterako Ezintasun egoeran bada go langile bat, medikuak langile horri alta eman arte atzeratuko dira oporrak.

Era berean, oporrez baliatzen ari den bitartean, langilea ospitaleratzen badute, oporrak eten egingo dira ospitaleratzeak irauten duen bitartean, eta egun horiek oporralditik kanpo hartuko ditu.

Opor-txanda hasi behar duenean, gaixotasun arruntak eragindako Aldi Baterako Ezintasun egoeran bada go langilea, eta gutxienez lau hilabetez egon behar badu egoera horretan, medikuak alta eman arte atzeratuko da oporraldia.

Oporrez baliatzen ari den bitartean, gaixotasun arruntak eraginda Aldi Baterako Ezintasun egoeratik baja hartzen badu langileak, oporrak zenbatzen jarraituko da dagokion txanda amaitu arte.

Onura horiek urte naturalaren barnean soilik gauzatu ahal izango dira.

Asimismo se considerarán no laborables los días 24 y 31 de Diciembre.

Se respetarán las fiestas locales propias del Municipio, debiéndose publicar las fechas de dichas fiestas en los correspondientes tablonos de anuncios.

Con carácter general, el trabajo en estos días se llevará a cabo con personal contratado a tiempo parcial. En caso de producirse alguna vacante en el personal contratado a tiempo parcial, y no existir personal de estas características, el servicio se efectuará con personal voluntario de entre los contratados a tiempo completo y a falta de personal voluntario, se nombrarán correturnos obligatorios.

Cuando deba realizarse el servicio en sábados, domingos y festivos por personal no contratado específicamente al efecto, se percibirán las retribuciones que figuran en el anexo II (tablas salariales, personal a tiempo parcial), sin descanso compensatorio.

Artículo 18.—Vacaciones

Todo el personal afecto al presente Convenio Colectivo disfrutará de 30 días laborables de vacaciones retribuidas.

Las vacaciones se disfrutarán por años naturales. El primer año de prestación de servicios en la empresa sólo se tendrá derecho al disfrute de la parte proporcional correspondiente al tiempo trabajado durante el año. El reconocimiento de este derecho se extiende tanto a trabajadores a jornada completa como a personal de tiempo parcial que cubra servicios de fin de semana o festivos.

Para el disfrute de las vacaciones anuales se establecen dos turnos:

— Turno I: Retrotraerse 30 días laborables desde el 31 de Julio.

— Turno II: 30 días laborables a partir del 1 de Agosto.

El trabajador que desee disfrutar sus vacaciones fuera de este periodo lo pondrá en conocimiento de la Empresa con un mes de antelación al disfrute de las mismas o al inicio del primer turno de vacaciones, indicando el mes que desea el disfrute de las mismas.

No obstante lo anterior, los trabajadores podrán disfrutar fuera de los turnos de vacaciones establecidos de 6 días de los 30 laborables, que podrán ser divididos hasta en 2 periodos de forma tal que uno de dichos periodos incluya un sábado, y siempre que no coincidan en cada periodo más de un 25% de la plantilla de cada centro, del mismo turno y categoría.

En caso de que las anteriores peticiones superen el porcentaje establecido en el punto anterior, su disfrute se regulará según los criterios que se establezcan en el centro de trabajo.

Durante el mes de Marzo de cada año se redactará un calendario general para el disfrute de las vacaciones en el que se especificarán las fechas y turnos que corresponden a cada trabajador que no obstante podrán modificarse y amoldarse a los distintos turnos de trabajo, descansos, fiestas locales y peculiaridades propias de cada centro de trabajo, de acuerdo con la Empresa.

En el caso de que algún trabajador en el momento que le corresponda iniciar su turno de vacaciones se encontrase en situación de IT debida a accidente laboral o bien se encontrase hospitalizado, las vacaciones se aplazarán hasta el momento en que el trabajador sea dado de alta médica por accidente laboral u hospitalización.

Asimismo las vacaciones quedarán interrumpidas si durante el disfrute de las mismas el trabajador fuera hospitalizado y por el tiempo que dure dicha hospitalización, disfrutando estos días fuera del periodo vacacional.

En el caso de que algún trabajador en el momento en que le corresponda iniciar su turno de vacaciones se encontrase en situación de IT por enfermedad común con una duración de al menos cuatro meses se aplazará el disfrute de las mismas hasta el momento en que fuera dado de alta médica.

Si durante el disfrute de las vacaciones algún trabajador causara baja por IT por enfermedad común estas seguirán contando hasta la finalización del turno correspondiente.

Estos beneficios sólo podrán ejercitarse dentro del año natural.

Oporraldian jaso beharreko soldata honela kalkulatu da: langileak, kontzeptu guztiengatik, oporrak baliatzen hasten den egunaren aurreko hiruhilekoan jasotako ordainsari guztien batez bestekoa bilatuz, betiere Hitzarmen honetako tauletakoa baino handiagoa bada. Aparteko orduei, gizarte laguntzari, dietei, mozkinetako partaidetzari eta aparteko haborokinei dagozkien lansariak soilik ez dira kontuan hartuko zenbaketa honetan.

18. bis artikulua.—Norberaren aukerako egunak

Antzintasuneko urte bat baino gehiagoko langile guztiek norberaren aukerako egun bat hartzeko eskubidea izango dute, bakar-bakarrik 2006. urtean, errekuiperatu beharrik gabe, honako baldintzekin:

- Eskabideen gehienezko kopurua plantillaren %20koa izango da txandako.
- Eguna hartu baino 15 egun lehenago jakinaraziko da.

Horrez gain, norberaren aukerako egun bat egongo da urteko oporren kargura.

Kasu guztietan zerbitzuaren bideragarritasuna bermatu behar da.

Artikulu hau 2006. urtean egongo da indarrean bakarrik, eta 2007. eta hurrengo urteetan ez da aplikatuko.

19. artikulua.—Ordaindutako baimenak

Langilea, alde aurretik abisatuta eta justifikatuta, lanera etorri gabe gelditu ahal izango da, lansaria jasotzeko eskubidearekin, honako arrazoi hauetako batengatik eta honako denbora hone- tarako:

- Langilea ezkontzen bada, ordainduriko 18 egun natural.
- Ezkontidearen edo seme-alaben heriotzagatik, 5 egun natural probintzian bertan bada, eta beste probintzia batean gertatu bada, 7 egun.
- 5 egun natural probintzian bertan guraso, anai-arreba, biloba eta aitona-amonak odolkideak zein ezkontza bidezkoak hiltzen badira, eta 7 egun natural beste probintzia batean hiltzen badira.
- 4 egun natural jarraian edo hiru lan-egun aldizka lehen graduko ahaideak zentro itxian edo etxebizitzan ospitaleratzeagatik, ebakuntza kirurgikoa izan ala ez, beti ere agiriaren bidez behar bezala justifikatzen bada. Enpresarekin alde aurretik adostuz gero, baimen hori ospitaleratzearen hasieran edo ebakuntzaren unetik aurrera hartu ahal izango da, baina egun horiek lizentzia sorrarazi duen gertakariak dirauen bitartean hartu ahal izango dira bakarrik.
- 4 egun natural jarraian edo hiru lan-egun aldizka bigarren graduko ahaideak zentro itxian edo etxebizitzan ospitaleratzeagatik, ebakuntza kirurgikoa izan ala ez, beti ere agiriaren bidez behar bezala justifikatzen bada, eta kasuaren larritasuna dela-eta langilea bertan egotea derrigorrezkoa den kasuetan soilik. Enpresarekin alde aurretik adostuz gero, baimen hori ospitaleratzearen hasieran edo ebakuntzaren unetik aurrera hartu ahal izango da, baina egun horiek lizentzia sorrarazi duen gertakariak dirauen bitartean hartu ahal izango dira bakarrik.
- Semea edo alaba jaiotzeagatik, 4 lanegun. Gaixotasun larria gertatzen bada, 5 egun izango dira.
- Izeba-osaba eta biloba odolkideen eta ezkontzazkoen heriotzagatik egun natural 1 probintzian bertan gertatzen bada, eta probintziatik kanpo bada 2 egun.
- Odolkidetasunezko edo ezkontzazko seme-alaben, gurasoen eta anai-arreben ezkontzagatik, egun natural 1; eta probintziatik kanpo gertatzen bada 3 egun.
- Ohiko etxebizitzaz aldatzeagatik, egutegiko egun 2.

El salario a percibir durante el periodo de vacaciones se calculará hallando el promedio de la totalidad de los emolumentos percibidos por el trabajador por todos los conceptos durante el trimestre anterior a la fecha en que comience a disfrutarlas, siempre que sea superior a las tablas del presente Convenio. Sólo se exceptúan de este cómputo las retribuciones correspondientes a horas extraordinarias, ayuda social, dietas, participación en beneficios y gratificaciones extraordinarias.

Artículo 18 bis.—Días de libre disposición

Todo trabajador con más de un año de antigüedad, tendrá derecho a un día de libre disposición durante el año 2006 única y exclusivamente, sin recuperación bajo los siguientes supuestos:

- El número máximo de solicitudes será de un 20% de la plantilla por turno.
- Se comunicará con al menos 15 días de antelación a su disfrute.

También se dispondrá de un día de libre disposición con cargo a vacaciones anuales.

En todos los casos, se deberá garantizar la viabilidad del servicio.

Este artículo tendrá vigencia única y exclusivamente durante el año 2006, y no será de aplicación para los años 2007 y sucesivos.

Artículo 19.—Permisos retribuidos

El trabajador, previo aviso y justificación, podrá ausentarse del trabajo con derecho a remuneración por el tiempo y motivos siguientes:

- 18 días naturales retribuidos en caso de matrimonio.
- 5 días naturales en caso de fallecimiento de cónyuge y/o hijos si es en la misma provincia y 7 días si es fuera de la provincia.
- 5 días naturales en caso de fallecimiento de padres, hermanos, nietos y abuelos consanguíneos y/o políticos si es en la misma provincia y 7 días si es fuera de la provincia.
- 4 días naturales consecutivos o tres días laborables alternos, en caso de hospitalización en centro cerrado o bien hospitalización domiciliaria mediante justificación documental suficiente con o sin intervención quirúrgica, de parientes de primer grado. Se podrá elegir previo acuerdo con la Empresa, el disfrute de la licencia, bien al comienzo de la hospitalización o a partir del momento de la intervención y que sólo podrán disfrutarse mientras dure el hecho causante que motivó la licencia.
- 4 días naturales consecutivos o tres días laborables alternos en caso de hospitalización en centro cerrado o bien hospitalización domiciliaria mediante justificación documental suficiente con o sin intervención quirúrgica, de parientes de segundo grado y siempre que la gravedad del caso requiera la presencia del trabajador. Se podrá elegir previo acuerdo con la Empresa, el disfrute de la licencia, bien al comienzo de la hospitalización o a partir del momento de la intervención y que sólo podrán disfrutarse mientras dure el hecho causante que motivó la licencia.
- 4 días laborables por nacimiento de hijo/a. Si concurriera enfermedad grave, se aumentaría a 5 días.
- 1 día natural por defunción de tíos y sobrinos carnales y políticos si es en la misma provincia y 2 días si es fuera de la provincia.
- 1 día natural en caso de matrimonio de hijos, padres y hermanos consanguíneos y/o políticos si es en la misma provincia y 3 días si es fuera de la provincia.
- 2 días naturales por traslado de domicilio habitual.

- Lehenengo jaunartze eta bataioengatik hartu ahal izango dira ordainduriko baimenak oporren edo atsedenaldien kontura, idatziz behar bezala egiaztatuta ohiko moduan.
- Langileak zitazio judizialelara aurkeztu behar bada lan-ordue-egunetan, langileari egotzi ezin zaizkion gertakariak lanean gertatzearen ondorioz, horretarako beharrezkoa den denbora ordaindu beharko da, eta langileak ez du berreskuratu beharko; horretaz gain, enpresak abokatua jarriko dio lan-egunetara bere kontura.
- Halaber, C, D, eta E gidabaimenak berritzeko, lehenengo deialdiko azterketa-egunetan behar den denborako baimena emango da, eta baimen hori bera emango da C gidabaimena lortzeko azterketa-egunetan ere. Gaueko txandako langileek eguneko txandako langileei ematen zaien tratua bera edukiko dute.
- Era berean, nahitaezko betebeharrak pertsonal saihestezin bat betetzeko behar den denborako baimena emango da.

Arau orokor gisa, lizentziak sortzen dituen gertakaria gertatzen den egunetan edo biharamunetik aurrera hasiko dira zenbatzen. Probintziatik atera behar denean lizentzia sorrarazi duen gertakaria aurreikusten den dataren bezperatik zenbatu ahal izango da.

20. artikulua.—*Ordaindu gabeko baimenak*

Enpresak soldata gabeko 10 egun emango dizkie urtean langileei, arrazoi justifikatu eta zentzuzkoengatik, zerbitzuen beharren arabera; baimen hori urtean behin baino ezin izango da hartu. Baimen hori oporetatik kanpo hartuko da, eta ezin izango da Eguberriko edo Aste Santuko aldiekin batera hartu, behar bezala justifikatutako ezinbesteko kasuetan izan ezik.

9 urtetik beherako seme-alabak edo bere ardurapean gutxiti fisiko, psikiko edo sensorialak dituen langilea alargunduz gero, 15 egun natural hartzeko eskubidea izango du.

21. artikulua.—*Eszedentzia*

Eszedentzia borondatezkoa edo nahitaezkoa izan daiteke.

1. Nahitaezkoak lanpostua gordetzeko eta bere indarraldian antzinatasuna zenbatzeko eskubidea emango du, eta langileak kargu publiko baterako izendatu edo hautatu dutela-eta lanera berataratzea ezinezkoa badu emango da. Lanera berriro itzultzea kargu publikoa utzi eta hurrengo hilabetearen barnean eskatu beharko du.

2. Enpresan gutxienez urtebete daraman langileak 6 hilabeteetik 5 urtera bitarteko borondatezko eszedentzia onar dakion eskubidea izango du. Berriro ere hartu nahiko balu eszedentzia, lau urte igaro beharko dira derrigorrez aurrekoa amaitu zenetik.

Enpresak lanpostua gordeko dio eszedentzian dagoen langileari, eta hark lanera itzuli baino bi hilabete lehenago jakinarazi beharko dio Enpresari lanera itzuliko dela, izan ere, jakinarazten ez badu, lanpostua galduko du une horretan zerbitzuen emakidaduna den enpresan.

3. Langileek hiru urtera bitarteko eszedentzia hartu ahal izango dute seme edo alaba bakoitza zaintzeko, hura jai edo adoptatu den egunetik zenbatzen hasita, beti ere bost urtetik beherakoa baldin bada. Ondorengo seme edo alaba bakoitzak beste eszedentzia baterako eskubidea emango du; hala gertatuz gero, une horretan baliatzen ari den eszedentzia bertan bukatuko da. Gurasoek lan egiten dutenean, bietako batek baino ezin izango du eskubide hau baliatu.

4. Era berean, Enpresan eszedentzia-egoerara pasatzea eskatu ahal izango dute probintziako edo goragoko eremuko sindikatu-eginkizunetan diharduten langileek. Egoera horrek langileak ordezkari karguan bitartean iraungo du.

3 eta 4 puntuei dagokienez, lanera itzultzeari buruz 2. puntuan ezarritako arau berberak aplikatuko dira.

- Las primeras comuniones y bautizos serán objeto de permiso retribuido con cargo a vacaciones o días de descanso debidamente justificados por escrito del modo habitual.
- En el supuesto de citaciones judiciales del personal que coincidan con su horario de trabajo como consecuencia de incidencias producidas en el mismo y que no sean imputables al trabajador, el tiempo indispensable para su cumplimiento será abonable no recuperable y con asistencia letrada por parte de la empresa.
- Asimismo se concederá permiso a la fecha del examen en primera convocatoria, para la renovación del permiso de conducir de clase C, D y E, por el tiempo necesario para el mismo, haciéndose extensivo este permiso en la fecha del examen para la obtención del permiso clase C. El personal de turno de noche tendrá el mismo tratamiento que el de día.
- Asimismo se concederá permiso por el tiempo indispensable para el cumplimiento de un deber inexcusable de carácter personal y obligatorio.

Como norma general, las diferentes licencias se comenzarán a contar en la fecha que se produzca la causa que la motive o a partir del día siguiente. Cuando sea preciso el desplazamiento fuera de la provincia se podrá contar a partir del día anterior en el que se prevea el hecho que dé motivo a la licencia.

Artículo 20.—*Permisos no retribuidos*

La Empresa concederá a los trabajadores que lo soliciten por causas justificadas y razonables hasta 10 días al año sin sueldo, teniendo en cuenta las necesidades del servicio y no teniendo derecho al disfrute nada más que una vez al año. Este permiso se disfrutará fuera del periodo vacacional y no podrá coincidir con los periodos de Navidad o Semana Santa, salvo por causas de fuerza mayor debidamente justificadas.

En caso de enviudar el trabajador/a que teniendo hijos menores de 9 años o disminuidos, físicos, psíquicos o sensoriales que estén a su cargo, tendrá derecho a 15 días naturales

Artículo 21.—*Excedencia*

La excedencia podrá ser forzosa o voluntaria.

1. La forzosa, que dará derecho a la conservación del puesto y al cómputo de la antigüedad de su vigencia, se concederá por la designación o elección para un cargo público que imposibilite la asistencia al trabajo. El reingreso deberá ser solicitado dentro del mes siguiente al cese en el cargo público.

2. El trabajador con una antigüedad en la empresa de al menos un año tendrá derecho a que se le reconozca una excedencia voluntaria por un periodo de 6 meses a 5 años. Este derecho sólo podrá ser ejercitado otra vez por el mismo trabajador cuando hayan transcurrido cuatro años desde el final de la anterior excedencia.

La Empresa reservará el puesto de trabajo al trabajador en excedencia, teniendo este último que avisar a la Empresa con dos meses de antelación a su reincorporación ya que, en caso de no hacerlo, perderá el derecho a su puesto en la Empresa que sea la concesionaria del servicio en ese momento.

3. Los trabajadores tendrán derecho a un periodo de excedencia no superior a tres años, para atender al cuidado de cada hijo, a contar desde la fecha de nacimiento o adopción, siempre que sea menor de cinco años. Los sucesivos hijos darán derecho a un nuevo período de excedencia que, en su caso, pondrá fin al que se viniera disfrutando. Cuando el padre y la madre trabajen, sólo uno de ellos podrá ejercer este derecho.

4. Asimismo, podrán solicitar su pase a la situación de excedencia en la Empresa los trabajadores que ejerzan funciones sindicales de ámbito provincial o superior mientras dure el ejercicio de su cargo representativo.

En los puntos 3 y 4 regirán a efectos de la reincorporación las mismas normas que las establecidas en el punto 2.

IV. KAPITULUA
BALDINTZA EKONOMIKOAK

Alderdi ekonomiko orokorrak

2006-2013 epea

Hitzarmen hau arian-arian CESP­A, SA Bizkaiko Hitzarmen orokorrekin parekatzen joateko (horren barruan daude Amorebieta, ERandio, Galdakao, Gernika, Getxo, Portugalete, Sestao, Etxebarri eta Berango eta parekatze-prozesuan dauden beste hainbat udalerrri) 2006ko urtarrilaren 1a eta 2013ko abenduaren 31 bitarteko epean honako igoerak egingo dira:

— Hitzarmen hau indarrean dagoen urte bakoitzean lanbide-kategoria bakoitzerako soldata gordina aurreko puntuan aipatzen den CESP­A, S­AREN Bizkaiko Hitzarmen Orokorreko lanbide-kategoria bakoitzari igotzen zaion euro gordinen kopuru berean igoko da urtean aurreko urtearekiko. Horri beste kopuru lineal iraunkor bat erantsiko zaio urtero, honakoa alegia:

- Gaueko gidaria: 360,88 euro gordin urtero.
- Eguneko gidaria: 302,72 euro gordin urtero.
- Gaueko peoi gidaria: 342,96 euro gordin urtero.
- Eguneko peoi gidaria: 288,75 euro gordin urtero.
- Gaueko peoia: 339,38 euro gordin urtero.
- Eguneko peoia: 285,70 euro gordin urtero.

Parekatzeko dauden gainerako artikulua edo Bizkaiko CESP­A, S­AREN Hitzarmen Orokorrean negoziatzen izan litezkeen aldaketak Hitzarmen honetako testuari erantsiz joango dira, hitzarmen honetako indarraldiko urte bakoitzeko soldata-taulak Enpresa Batzordearekin negoziatzen direnean, eta 1. puntuan deskribatutako Hitzarmen Orokorrean duten denbora-ondorio berberak izango ditu.

2013ko urtarrilaren 1ean Hitzarmen honen aplikazio-eremuaren barruan sartzen diren langileei Hitzarmen honen lehen paragrafoan aipatzen den Bizkaiko CESP­A, S­AREN Hitzarmen Orokorreko (edo data horretan zentro horiei aplikatu behar zaizen beste edozein Hitzarmenetako) baldintza ekonomiko eta laboralak aplikatuko zaizkie oso-osorik

22. artikulua.—Langile bakoitzaren ordainsaria

II. eranskinetako taulan zehazten diren Hitzarmeneko Oinarrizko Soldatak eta Soldata Osagarriak (plusak) osatuko dute, hurrengo artikuluetako edukiaren arabera.

Osagarri horiek (Plusak) kontuan hartuko dira bai baja kasuan jaso beharreko ordainsarietarako bai ordaindutako lizentziatarako baita oporretarako ere.

Plus horiek jasotzeko, bezala justifikatutako ordaindutako lizentziak benetako lan-eguntzat hartuko dira.

Soldata-osagarriak honela izendatzen dira:

- A) pertsonalak:
 - Antzinasuna.
- B) lanpostukoak.
 - lan toxiko, nekagarri eta arriskutsuaren plusa.
 - Gaueko lanaren plusa.
 - Laneratze-plusa.
 - Lan-kopuruaren plusa.
- C) soldataz besteko ordainsariak.
 - Garraio-plusa.

23. artikulua.—Oinarrizko soldata

Hitzarmen Kolektibo honen eraginpeko langileen oinarrizko soldata kategoria bakoitzerako II. eranskinen zehaztutakoa da, eta egun naturalen arabera sortuko da.

CAPÍTULO IV
CONDICIONES ECONÓMICAS

Aspectos económicos generales

Período 2006 - 2013

Al objeto de que se produzca la equiparación progresiva del presente Convenio al Convenio General de CESP­A, S.A. Bizkaia, que afecta a los Ayuntamientos de Amorebieta, Erandio, Galdakao, Gernika, Getxo, Portugalete, Sestao, Etxebarri y Berango y otros Municipios existentes en proceso de equiparación, durante el período comprendido entre el 1 de enero de 2006 y 31 de diciembre de 2013, se realizarán los siguientes incrementos salariales:

— Cada uno de los años de vigencia del presente Convenio, el salario bruto anual para cada categoría profesional se aumentará en la misma cantidad, en Euros brutos anuales en que se incrementa respecto el año anterior, cada una de las categorías profesionales afectadas del Convenio General de CESP­A, S.A. Bizkaia, referido en el punto anterior, más otra cantidad lineal, anual y constante para cada categoría profesional consistente en:

- Conductor noche: 360,88 euros brutos anuales.
- Conductor día: 302,72 euros brutos anuales.
- Peón conductor noche: 342,96 euros brutos anuales.
- Peón conductor día: 288,75 euros brutos anuales.
- Peón noche: 339,38 euros brutos anuales.
- Peón día: 285,70 euros brutos anuales.

Respecto al resto del articulado pendiente de equiparar, o modificaciones que pudieran producirse durante la negociación del Convenio General de CESP­A, S.A. Bizkaia, se irán incorporando al texto del presente Convenio, cuando se produzca la negociación con el Comité de Empresa, de las tablas salariales de cada uno de los años de vigencia del presente convenio, con los mismos efectos temporales que tengan en el Convenio General descrito en el punto 1º.

Con fecha 1 de enero de 2013, a los trabajadores incluidos en el ámbito de aplicación del presente Convenio, les será de aplicación íntegramente las condiciones económicas y laborales reflejadas en el Convenio General de CESP­A, S.A. Bizkaia detallado en el párrafo primero del presente Convenio o de cualquier otro Convenio que a dichos centros le sea de aplicación en la fecha antes citada.

Artículo 22.—Retribución de cada trabajador

Estará compuesta por el Salario Base de Convenio y los Complementos Salariales (Plus) que se determinan en la tabla del anexo II, en relación con el contenido de los siguientes artículos.

Estos complementos (Plus) serán considerados tanto para el cálculo de las percepciones en caso de baja como para licencias retribuidas y vacaciones.

A efecto de percepción de estos pluses, las faltas por licencias retribuidas debidamente justificadas se considerarán como días efectivos de trabajo.

Los complementos salariales se denominan de la forma siguiente:

- A) de carácter personal:
 - Antigüedad.
- B) de puesto de trabajo.
 - Plus tóxico, penoso y peligroso.
 - Plus nocturnidad.
 - Plus asistencia.
 - Plus de cantidad de trabajo.
- C) percepciones no salariales.
 - Plus de transporte.

Artículo 23.—Salario base

El salario base del personal afectado por este Convenio Colectivo es el que se especifica en el anexo II para cada categoría y se devengará por día natural.

24. artikulua.—Antzinasuna

2006. urtean antzinasuna Durangoko lantokiko langileen-tzakoa aurreko Hitzarmen Kolektiboko (2003–2005) 16. artikuluan (Antzinasuna) xedatutakoaren arabera arautuko da.

2007ko urtarrilaren 1etik aurrera langile guztiek antzinasu-neko osagarri pertsonala jasoko dute. Osagarri hori oinarritzko sol- dataren %5eko hiru biurteko eta horren ondorengo %7ko bos- turteko osatuko da, eta oinarritzko soldataren egun berberetan sortuko da. Antzinasuna sortuz joaten diren biurtekoak edo bos- turtekoak betetzen diren urteko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko da.

25. artikulua.—Gaueko lanaren plusa

21:00ak eta 06:00ak bitartean lan egiten duten langile guztiek gaueko plusa jasoko dute, II. eranskineko soldata-taletan kate- goría bakoitzarentzat islatzen diren zenbatekoekin. Plus hori gaue- ko lanaldian egindako lan-egun bakoitzagatik ordainduko da baka- rrik. Eskuratutako eskubideagatik larunbatetan lan egiten duten langileek plus hori jasoko dute, beti ere haren asteko lanaldi guz- tia astelehenetik ostiralera bitartean egin badute benetan.

Plus hori jasotzeko behar bezala justifikatutako legezko hutsegiteak eta lizentziak benetako lan-eguntzat joko dira, eta jus- tifikatu gabeko hutsegiteen kasuan ez dira ordainduko, ez hutse- gitearen egunari dagokion plusa ez larunbatari dagokion zati pro- portzionala.

26. artikulua.—Lan toxiko, nekagarri eta arriskutsuaren plusa

Hitzarmen honen eraginpeko esku-langileek lan toxiko, nekagarri eta arriskutsuaren plusa jasoko dute. Plus hori benetan egindako lan eguneko kategoria bakoitzari dagokion oinarritzko soldataren %20koa izango da. Eskuratutako eskubideagatik larunbatetan lan egiten duten langileek plus hori jasoko dute, beti ere haren asteko lanaldi guztia astelehenetik ostiralera bitartean egin badute benetan.

Plus hori jasotzeko behar bezala justifikatutako legezko hutsegiteak eta lizentziak benetako lan-eguntzat joko dira, eta jus- tifikatu gabeko hutsegiteen kasuan ez dira ordainduko, ez hutse- gitearen egunari dagokion plusa ez larunbatari dagokion zati pro- portzionala.

27. artikulua.—Bertaratze-plusa

Hitzarmen honen eraginpeko langile guztiek bertaratze-plusa jasoko dute benetan lan egindako eguneko, II. eranskinean zehaz- ten den zenbatekoarekin. Ez da zenbatuko igande eta jaiegune- tako kalkulu eta ordainketarako.

Langilearen bertaratze-hutsegiteak izanez gero plus hori jasotzen eskubidea galduko da, honako eskalaren arabera:

- Hilabete berean justifikatu gabeko hiru hutsegiterengatik plus horren hileko zenbatekoaren erdia deskontatuko da.
- Hil berean justifikatu gabeko lau hutsegite eginez gero, plus hori ez da jasoko.

Zehapen horiek ez dute zerikusirik legezko xedapenen arabera langileak jaso ditzakeen bestelako zigorrekin.

Bertaratze plusa jasotzeko behar bezala justifikatutako legez- ko hutsegiteak eta lizentziak benetako lan-eguntzat joko dira, eta justifikatu gabeko hutsegiteen kasuan ez dira ordainduko, ez hutsegitearen egunari dagokion plusa ez larunbatari dagokion zati proportzionala.

28. artikulua.—Garraio plusa

Hitzarmen honen eraginpeko langile guztiek garraio-plusa jaso- ko dute benetan lan egindako eguneko, II. eranskinean zehazten den zenbatekoarekin.

Ez da zenbatuko igande eta jaiegunetako kalkulu eta ordain- ketarako.

Garraio plusa kontuan hartuko da baja kasuetako ordainsa- rietarako.

Artículo 24.—Antigüedad

Durante el año 2006, la antigüedad se regirá de acuerdo con lo estipulado en el artículo 16 (Antigüedad), del Convenio Colectivo inmediato anterior (2003-2005), para los trabajadores del centro de trabajo de Durango.

A partir del 1 de enero de 2007, todos los trabajadores perci- birán un complemento personal de antigüedad consistente en tres bienios del 5% y posteriores quinquenios del 7% del salario base reflejado en las tablas del anexo II, devengándose en los mismos días del salario base. La antigüedad se devengará desde el día 1 de enero del año en que se cumplan los bienios o quinquenios que se vayan generando.

Artículo 25.—Plus de nocturnidad

Todos los operarios que trabajen entre las 21 y las 6 horas perci- birán un plus de nocturnidad en la cuantía que se refleja en las tablas salariales del anexo II, correspondiente a cada categoría. Este plus se abonará únicamente por día efectivamente trabaja- do en jornada nocturna. El personal que descansa por derecho adqui- rido los sábados percibirá este plus dichos día siempre que haya realizado efectivamente toda su jornada semanal de lunes a vier- nes.

A efectos de la percepción de este plus las faltas y licencias legales debidamente justificadas se considerarán como días efec- tivos de trabajo, no abonándose en caso de faltas injustificadas ni el plus correspondiente al día de la falta ni la parte proporcional correspondiente al sábado.

Artículo 26.—Plus tóxico, penoso y peligroso

El personal operario afecto al presente convenio percibirá un plus por trabajos tóxicos, penosos y peligrosos consistente en un 20% sobre el salario base correspondiente a cada categoría por día efectivo de trabajo. El personal que descansa por derecho adquirido los sábados percibirá este plus dichos días, siempre que haya realizado efectivamente toda su jornada semanal de lunes a viernes.

A efectos de la percepción de este plus las faltas y licencias legales debidamente justificadas se considerarán como días efec- tivos de trabajo, no abonándose en caso de faltas injustificadas ni el plus correspondiente al día de la falta ni la parte proporcional correspondiente al sábado.

Artículo 27.—Plus de asistencia

Todo el personal afecto al presente convenio percibirá un plus de asistencia por jornada efectivamente trabajada y por el impor- te indicado en el anexo II. No se computará para el cálculo y pago de domingos y festivos.

Las faltas de asistencia activa al trabajo producirán la pérdi- da de este plus de acuerdo con la siguiente escala:

- Por tres faltas sin justificar el mismo mes se descontará la mitad de la cuantía mensual de dicho plus.
- Por cuatro faltas sin justificar en el mismo mes, se dejará de percibir dicho plus.

Estas penalizaciones son independientes de las sanciones en que pudiere incurrir el trabajador, según disposiciones legales.

A efectos de la percepción del plus de asistencia las faltas y licencias legales debidamente justificadas se considerarán como días efectivos de trabajo, no abonándose en caso de faltas injus- tificadas el plus correspondiente al día de la falta ni la parte pro- porcional correspondiente al sábado.

Artículo 28.—Plus de transporte

Todo el personal afecto al presente convenio percibirá un plus de transporte por jornada efectivamente trabajada y por el impor- te indicado en el anexo II.

No se computará para el cálculo y pago de domingos y festivos.

El plus de transporte será considerado para las percepciones en los casos de baja.

29. artikulua.—Lan-kantitatearen plusa

Hitzarmen honen eraginpeko langileek lan-kantitatearen plusa jasoko dute igande eta jaiegunen hurrengo egunetan, egun haientan pilatzen den gehiegizko zaborragatik. Horren zenbatekoa II. eranskinean islatuko dira kategoria bakoitzerako. Plus hori kontuan hartuko da baja kasuetako ordainsarietarako.

30. artikulua.—Hilabetea baino aldi luzeagoko soldata-osa-garriak*Uztail eta eguberriko aparteko ordainsariak*

Uztaileko eta Eguberriko aparteko haborokinak egun naturaleko ordainduko dira, eta egindako lan-denboraren arabera, II. Eranskineko soldata-taulari jarraituz (oinarrizko soldata + langile bakoitzari dagokion kopurua). Haborokin horiek sei hilabetez behin sortuko dira. Hor-taz, uztaileko ordainsaria urtarrilaren 1etik ekainaren 30era sortuko da, eta Eguberriko ordainsaria uztailearen 1etik abenduaren 31ra. Justifikatu gabeko ez-laneratzeek ez dute ordainsaririk sortuko.

San Martin Porreskoaren egunagatiko haborokina

San Martin Porreskoaren aparteko haborokina egun naturaleko ordainduko da, eta egindako lan-denboraren arabera, II. Eranskineko soldata-taulari jarraituz (oinarrizko soldata + langile bakoitzari dagokion kopurua). Haborokin hori urtero sortuko da, urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean, eta justifikatu gabeko ez-laneratzeengatik ez da haborokinik sortuko.

Martxoko ordainsaria

Hori sortzeko aldiaren hurrengo urteko martxoan langileek haborokin bat jasoko dute lan egindako denboraren arabera, II. eranskineko soldata-taulari jarraituz (oinarrizko soldata + langile bakoitzari dagokion antzintasuna).

Haborokin hori urtero sortuko da egunez egun, urteroko urtarrilaren 1etik abenduaren 31 bitartean, eta egun naturaleko ordainduko da lan egindako denboraren arabera. Justifikatu gabeko ez-laneratzeak ez dira kontuan hartuko haborokin hori sortzeko.

31. artikulua.—Aparteko orduak

Arau orokor gisa, ez da aparteko ordurik egingo. Zerbitzuak betetzeak, ezinbesteko arrazoiak, eta egiturazko arrazoiak eraginda egingo dira aparteko orduak.

Egiturazko aparteko orduak kontzeptua sailkatzearen, honako hauek hartuko dira halakotzat: puntako produkzio-aldiek, ezusteko ez-bertaratzeak eta txanda-aldaketek eragindakoak, edo lanaren izaerak edo mantentze-lanak eragindako egiturazko orduak.

Ordu horiek egin behar direnean, II. Eranskinean lanbide-kategoria desberdinen arabera islatzen diren prezioak ordainduko dira, edo egindako aparteko lan ordu bakoitzeko ordu eta erdiko atsendaldiaren bidez konpentsatu egingo dira, enpresari behar besteko aurrerapenez jakinarazi ondoren. Era batera edo bestera egi-tea langilearen erabakia izango da.

Banaketa ekitatikoa egingo da haien borondatez aparteko orduak egiten dituzten langile guztien artean.

32. artikulua.—Dietak

Dietak honako hauek izango dira:

- Bazkaria: 13,13 euro.
- Dieta-erdia: 20,49 euro.
- Dieta osoa: 49,68 euro.

Zenbateko horiek urtez urte eguneratuko dira, soldata taula igotzen den ehuneko berberetan, CESPAS Bizkaiaren Hitzarmen Orokorrean kontzeptu horretarako ezarritako zenbatekora iritsi arte.

33. artikulua.—Nominaren ordainketa

Hileko nomina hilaren 5ean ordainduko da, jai-eguna izan ezean. Kasu horretan aurreko egunean ordainduko da. Aparteko ordainsariak dagokion hilaren 15ean ordainduko dira. San Martin Porreskoaren ordainsaria irailaren 15ean ordainduko da.

Artículo 29.—Plus de cantidad de trabajo

El personal afecto a este Convenio percibirán un plus de cantidad de trabajo los días siguientes a domingos y festivos, motivado por el exceso de basura acumulado dichos días. Su cuantía será la reflejada para cada categoría en las tablas del anexo II. Este plus será considerado para las percepciones en caso de baja.

Artículo 30.—Complementos salariales de vencimiento periódico superior al mes*Pagas extraordinarias de julio y navidad*

Las gratificaciones extraordinarias de Julio y Navidad se abonarán por día natural y en proporción al tiempo trabajado de acuerdo con la tabla salarial del Anexo II (salario base + la antigüedad correspondiente a cada trabajador). Dichas gratificaciones se devengarán semestralmente. Así la paga de Julio se devengará del 1 de Enero al 30 de Junio y la paga de Navidad del 1 de Julio al 31 de Diciembre, no devengándose en las ausencias injustificadas.

Gratificación de San Martín de Porres

La gratificación de San Martín de Porres se abonará por día natural y en proporción al tiempo trabajado de acuerdo con la tabla salarial del anexo II (salario base + la antigüedad correspondiente a cada trabajador). Dicha gratificación se devengará anualmente del 1 de enero al 31 de diciembre, no devengándose en las ausencias injustificadas.

Paga de marzo

En el mes de Marzo del año siguiente al periodo de su devengo, los trabajadores percibirán en proporción al tiempo trabajado una gratificación de acuerdo con la tabla salarial del anexo II (salario base + la antigüedad correspondiente a cada trabajador).

Esta gratificación se devengará anualmente y día a día del 1 de enero al 31 de diciembre de cada año y se abonará por día natural en proporción al tiempo trabajado, no devengándose en las ausencias injustificadas.

Artículo 31.—Horas extraordinarias

Como norma general no se realizarán horas extraordinarias. Las horas extraordinarias que se realicen vendrán motivadas por la prestación de servicios por causa de fuerza mayor y las estructurales.

A fin de clasificar el concepto de horas extraordinarias estructurales, se entenderán como tales las motivadas por periodos punta de producción, ausencias imprevistas, cambios de turno o las de carácter estructural derivadas de la naturaleza del trabajo o mantenimiento.

Cuando deban efectuarse, se abonarán a los precios que, en función de las diferentes categorías profesionales se reflejan en el Anexo II, o se compensarán, previa comunicación a la Empresa con suficiente antelación, mediante el disfrute de hora y media de descanso compensatorio por cada hora extraordinaria realizada, a elección del trabajador.

Se procurará una distribución equitativa entre todos los trabajadores, que de forma voluntaria las realicen.

Artículo 32.—Dietas

Se determinarán unas dietas con arreglo a los siguientes baremos:

- Comida: 13,13 euros.
- Media Dieta: 20,49 euros.
- Dieta Completa: 49,68 euros.

Estos importes serán revisados año a año en los mismos porcentajes que experimente la tabla salarial hasta alcanzar el importe para este concepto, establecido en el Convenio General de CESPAS, S.A. Bizkaia.

Artículo 33.—Pago de nómina

La nómina mensual se pagará el día 5 de cada mes, salvo que fuese festivo, en cuyo caso se pagará el día anterior. Las pagas extraordinarias se pagarán el día 15 del mes a que corresponda. La paga de San Martín de Porres se abonará el día 15 del mes de setiembre de cada año.

Nomina egiterakoan akatsik egonez gero, aurkitutako aldeak akatsa aurkitu ondorengo hurrengo aurrerakina edo nominaren lehen ordainketan ordaindu edo deskontatuko dira.

En caso de error en la confección de la nómina, las diferencias observadas serán abonadas o descontadas al trabajador en el primer pago de anticipo o nómina que se realice una vez detectado el error.

V. KAPITULUA

BESTE GIZARTE GAI BATZUK

34. artikulua.—*Istripu-poliza*

Enpresak istripu-poliza bat sinatzeko konpromisoa hartzen du. Poliza horrek, 2005eko urtarrilaren 1etik aurrera, 32.000 euro-ko kalte-ordaina bermatuko du langile bakoitzarentzat honakoak gertatzen direnean: Laneko edo lanetik kanpoko istripuagatik heriotza, lan-istripu baten edo gaixotasun profesional baten ondorioz gertatutako ezintasun iraunkor osoa edo absolutua edo lanbide-gaixotasuna eta gaixotasun profesionalarengatik heriotza.

Artikulu honen ondorioetarako, enpresa honetako zerbitzua betetzeagatik harrapatutako gaixotasuna hartuko da lanbide-gaixotasuntzat.

Enpresak hitzarmen hau sinatzen denetik hurrengo lehenengo hamabost egunetan sinatu beharko du poliza. Enpresak polizaren kopia bat emango dio enpresa batzordeari.

35. artikulua.—*Erretiroa*

Hala nahi duen langileak erretiratzeko eskubidea izango du horretarako legezko baldintzak betetzen dituen une berean, eta honako aukeretakoa batez baino ezin izango da baliatu:

60 eta 63 urte bitarteko erretiroa

Langile bat erretiratzeko denean enpresak kantitate batzuk emanango ditu horretarako laguntza gisa zerbitzuan duen antzinasuneko urte bakoitzeko, beti hori erretiroa 60 eta 63 urte bitartean eskatzen bada. Kantitate horiek honakoak dira: 60 eta 61 urte bitartean: 249,06 euro; 62 eta 63 urte bitartean: 217,92 euro.

64 urteko erretiro bereziaren kontratua

Langilea erretiratu ahal izango da 64 urte betetzen dituenean, uztailaren 17ko 1.194/85 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera, eta enpresak konpromisoa hartzen du beste langile bat kontratatutako duela gutxienez urte beteko iraupena izango duen iraupen jakineko kontratu baten bidez.

Txanda kontratua

